# 2018 Urteko Txostena

## Jardueren Memoria

Datu Sozioekonomikoak

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

**Batzar Nagusia**

José Antonio Santano Clavero. *Irungo Alkatea.*
Txomin Sagarzazu Anzisar. *Hondarribiko Alkatea.*

**Administrazio Kontseilua**

Miguel Angel Páez Escamendi. *Presidentea.*
Juan Mari Altuna Muñoa. *Presidenteordea.*
Cristina Laborda Albolea. *Batzordekidea.*
Xabier Iridoy Olaizola. *Batzordekidea.*
David Soto Rodríguez. *Batzordekidea.*
Jokin Melida Beltran de Heredia. *Batzordekidea.*
Muriel Larrea Laso. *Batzordekidea.*
María Serrano Olascoaga. *Batzordekidea.*
Mikel Garmendia Mugica. *Batzordekidea.*
Eva Fernández Tolosa. *Idazkaria.*



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



**Zuzendaritza taldea**

*Zuzendari Gerentea.*
Eva Fernández Tolosa.

*Lehiakortasuna eta Berrikuntza.*
Silvia Istillarte Pardo.
*Formakuntza eta Enplegua.*
Isabel Otxandorena Juanena.
*Ekintzailetza eta Jarduera Berria.*
Izaskun Iridoy Olaizola.
*Turismoa.*
Cristina Gutiérrez Alonso.
*Behatokia, Europako Lankidetza eta Partzuergoa.*
Vicky Alquezar Schepens.
*Zerbitzu Orokorrak.*
Miren Aranburu Garmendia.

# Aurkibidea

SARRERA

DEPARTAMENTUAK

**01**/ Lehiakortasuna eta Berrikuntza
**02**/ Formakuntza eta Enplegua
**03**/ Ekintzailetza eta Jarduera Berria
**04**/ Turismoa
**05**/ Behatokia, Europako Lankidetza eta Partzuergoa

PROIEKTUAK

**06**/ Krea Bidasoa
**07**/ CONNECT Innovation bai! POCTEFA

BIDASOA BIZIRIK KOPURUTAN

URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA

**08**/ Demografia eta gizartea
**09**/ Lan merkatua
**10**/ Enpresa ehuna
**11**/ Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza
**12**/ Industria
**13**/ Eraikuntza
**14**/ Merkataritza
**15**/ Turismoa
**16**/ Garraio eta azpiegiturak
**17**/ Zerbitzuak
**18**/ Ekipamenduak

Eskerronak

Beste urte batez, 2018an, elkarlana eta berrikuntza izan dira lan ardatz nagusiak Bidasoa bizirik-ek, Irungo eta Hondarribiko udalek emandako kudeaketa agindu eta planen babespean, bere politika eta jarduerak diseinatzeko eta ezartzeko.

Azpimarratzekoa da enpresaren antolamendua Garapen Ekonomikoko Plan Estrategikoa betetzeko lerrokatu dela. Partaidetza bidez egin dugu plana, Irungo eta Hondarribiko ehun sozioekonomikoarekin eta Bidasoa bizirik osatzen duten pertsonekin batera, eta hark gidatu ditu sozietateak garatu beharreko jarduera ildoak, eta halaxe izango da datozen urteetan ere.

Bidasoa bizirik-eko zerbitzu guztiak Ducoureau eraikinera lekualdatu ditugu. Horrela, instalazioak eta sozietatea osatzen duten pertsonen lan baldintzak hobetzeaz gain, giza baliabideen antolamendua eta kudeaketa hobetu ditugu, nabarmen hobetu ere, eta, horrenbestez, baita herritarrei, enpresei eta ekintzaileei ematen dizkiegun zerbitzuak.

Enpleguaren alorrean, aurten, Bidasoa bizirik-ek azken urteetan antolatu izan dituen bi enplegu asteak antolatu ditugu, eta Turislan turismo sektoreko enpleguaren azokan parte hartu dugu, aktiboki parte hartu ere, Irungo eta Hondarribiko enpresek eta ingurukoek egiten d ituzten lan eskaintzak gure eskualdeko eskatzaileei helarazten. Enpleguarekin zerikusia duten entitate eta erakundeekiko elkarlana sendotu dugu, eta enpresa sarearekiko harremana estutu, funtsezkoa baita Bidasoko herritarren enplegagarritasuna hobetzeko. Aipatzekoa da lan munduan sartzeko baliabideen sare bat jarri dugula martxan ekitaldi hobetan. Pertsonak lana bilatzeko prozesuan hobeto posizionatzeko estrategia eta jarduera berritzaileak diseinatzen eta sustatzen jarraitu dugu, haiek lan munduan sartzeko betiere, El Espazio zerbitzuan oso askotariko tailerrak martxan jarrita, eta Gaztebilan gazteak lan munduan sartzeko programaren edizio berri bat eraman dugu aurrera, Europako Gizarte Funtsak finantzatuta, Gazteentzako Berme Funtsaren bidez.

Lanerako prestakuntza jarduerak lan merkatuan tira duten profil profesionalentzat dira, eta parte hartzen dutenek profesionaltasun ziurtagiria lortzeko jarduerak egitera jotzen dugu; izan ere, ziurtagiri horrek nabarmen hobetzen ditu lan munduan sartzeko aukerak. Ostalaritza sektoreko eta “etorkizuneko” enpleguen sektoreko prestakuntza sendotzen jarraitu dugu.

Berrikuntza eta enpresen arteko elkarlana sustatzea sozietatearen jardunaren ardatzetako bat da, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzea helburu betiere. Aurten, Irungo eta Hondarribiko 4.0 industriaren egungo egoerari buruzko azterketak finkatutako ildoei jarraituz, hamar enpresa gehitu zaizkie aurreko ekitaldian diagnostikoa egin zuten hamabostei. Horrela, aurrez finkatutako helburua lortu dugu (25 enpresak parte hartzea), eta, horri esker, eskualdeko ehun industrialaren benetako egoera ezagutu dugu, eta digitalizazio maila eta zerbitzu teknologikoen eskari potentziala identifikatu.

Parte hartu duten enpresei beren eraldaketa digitalerako banakako ekintza plan bat egin diegu. Azkenik, Connect Innovation Bai! proiektuaren esparruan, hainbat jarduera zehaztu ditugu, lau kategoriatan sailkatuta (kultura digitalaren sustapena, prestakuntza digitala, ezarpenak eta mikroezarpenak, eta tokiko eskaintzaren sustapena), eskualdeak etorkizun hurbilean 4.0 industriarako behin betiko saltoa egiteko, eta, haien bidez, Euskal irigune Elkargoarekiko, Mondragon Unibertsitatearekiko, ESTIA ingeniaritza eskolarekiko eta GAIA elektronikako enpresen elkartearekiko elkarlana sendotu dugu. 2018an, Connect Innovation Bai! proiektua Bidasoa – Sud Pays Basque mugaz gaindiko lurraldean berrikuntza sustatzeko benetako estrategia bilakatu da, berrikuntzaren mugaz gaindiko ibilbidea jarrita martxan, zeinak gai garrantzitsuak dituen geltoki, hala nola zilar ekonomia, eraikuntza jasangarria eta surf munduarekin lotutako objektu konektatuak.

Erabat Bidasoaldeko Hiri Behatokia oinarrizko tresna da gure azterketa sozioekonomikorako, eta, 2018an, haren funtzionamendu eta irudia guztiz berrituta, Irun eta Hondarribirako informazio antena bihurtu da.

# SARRERA/

Ekitaldi honetan, lan handia egin dugu Agentziaren barruan funtsezkoa den ardatz bat garatzeko: ekintzailetza, hasi hasierako fasetik (alegia, negozio ideia berrien sustapenetik) eta buka negozio plana gauzatzeko fasean. Ekintzaile komunitateak indartzen jarraitzen du, eta Ideiak bizirik bloga benetako topaleku bat da, non ekintzaileek eta enpresa sortu berriek informazio interesgarria topatu eta ezaupideak, ideiak eta esperientziak truka ditzaketen. Enpresa zentroak eta coworking gunea dira komunitate horren isla fisikoa. Nabarmentzekoa da zer parte hartze handia izan den ekintzailetza sortzaileko eta ekintzailetza makerreko tailerretan: 576 parte hartzaile izan dira programatutako 71 jarduеretan. Oso jarduera berritzaileak izan dira, eta joera berriak ekintzaileen eta enpresa sarearen eskura jarri dituzte, baita teknologia haur eta gazteengana gerturatu ere. Azpimarratu beharra dago 2018an ekintzaileentzako beken programa bat jarri dugula martxan eta lehenengo edizioak arrakasta handia izan duela, zortzi enpresa ekimen berri sustatzen ari baikara.

Turismoaren alorrean, eskualdean sektore horretan diharduten eragile publikoen eta pribatuen arteko elkarlana indartzea da funtsezko lan ardatzetako bat. Ekitaldi honetan, aipatzekoa da esperientzia gastronomikoen gida sendotu izana, baita 2018an Irunentzat erromatar hirien sare bat martxan jartzeko dinamizazio lana, zeinak Hondarribia buru duen Erdi Aroko hirien sarea dinamizatzeko lana osatzen duen.

Interneteko gure posizionamendua sendotzen jarraitu dugu, Visit Hondarribia Irun plataformaren bidez, sare sozialetarako estekak eskainita, bi udalerriotako baliabide turistikoak era berritzailean sustatzeko.

Beste urte batez, nabarmentzekoa da Krea Bidasoa ekintzailetza, berrikuntza eta sorkuntza azoka: enpresen, ekintzaileen, sortzaileen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko topagune bat da Krea Bidasoa, eta ekintzailetzaren, berrikuntzaren eta sorkuntzaren arloko esperientzien trukean eta alor horretako azken joeren ezagutzan interesa duten beste eragile batzuek ere parte hartzen dute bertan. Hamargarren edizioa izan da aurtengoa, eta 400 parte hartzaile izan dira.

2018an, enplegu sorreran eta enpresa ekimen berrien sorreran goraka ari diren sektoreen inguruko jarduerak sustatzea eta gauzatzea izan da gure jardunaren ildo nagusia, eta aipatzekoak izan dira hauek: industria sortzailea, ekonomia zirkularra, maker mugimendua, lehenengo sektorea eta nekazaritzako elikagaien sektorea, eta Bidasoko enpresa txiki eta ertainak 4.0 posizionatzeko laguntza.

Sozietateak laguntza teknikoa eman die Irungo eta Hondarribiko udalei, EDERBIDEA, BIDE BEREZIAK eta CREACITY proiektuak aurkezteko eta kudeatzeko, zeinak POCTEFA 2014-2020 ekimenak ere finantzatzen dituen. Era berean, mugaz gaindiko mugikortasunaren inguruko proiektua garatzeko laguntza teknikoa eman die Irungo Udalari eta Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoari (Smartmob).

Beste urte batez, Irun Ekintzan Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko itunaren eta Hondarribia Abian enpleguaren eta garapen ekonomikoaren aldeko planaren esparruko jarduerak sustatzen, garatzen eta gauzatzen parte hartu du Bidasoa bizirik-ek, eta Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoaren jarduerak koordinatu eta garatu ditu.

# 01/ Lehiakortasuna eta Berrikuntza.

Gure lan ildoari jarraiki, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta duten garapen gaitasuna indartzeko, joan den urtean eskualdeko industria enpresekin batera prestatutako 4.0 industria ekintza plana hedatzeko lanari ekin diogu aurten. Bertako produktuen eta nekazaritzako elikagaien industria sektorearekin, eta 2017an hasitako lanarri jarraipena emanez, aurten 15 enpresarekin egin dugu lan eta banakako 15 diagnostiko eta ekintza plan egin ditugu. Era berean, sektore horretarako ekintza plana diseinatu dugu, agentziak gida gisa erabiliko duena.

Bestalde, sorkuntza, berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzen jarraitu dugu, eta horretarako, bertako produktuei balioa emateko Gure Gourmet programa jarri dugu abian, Sorkuntza Industriaren katalogoa prestatu eta produktu berriak testatzeko berrikuntza irekiaren ekintzak landu ditugu eta bisitak egin ditugu zentro teknologikoetara eta jarduera nautikoak eta zilar koloreko ekonomia bezalako sektoreetako esperientzietara.

## 01/1.
## 4.0 industria

- Egoeraren diagnostikoak 4.0. industriaren teknologiak txertatzeari dagokionean. **10 diagnostiko 20 langiletik** gorako industria enpresetan.

- **Bonu teknologikoak**. **5 enpresak** aurkeztu dituzte beren proiektuak Bidasoa bizirikek babestuta.

- Databid. 4 enpresak denbora errealeko aginte koadroak inplementatu dituzte beren kudeaketan eta hodeian, eta horri esker, arinago har ditzakete erabakiak.

- Bidasoa biziriken 4.0 industriaren ekintza plana argitaratzea.




## 01/2.
## Nekazaritzako elikagaien industria eta bertako produktuak

- **15 enpresari diagnostikoa** egin zaie ekintza plana prestatzeko.

- Gure Gourmet. Komunikaziorako eta bertako produktuei balioa emateko kanpainan **15 nekazaritza-industria enpresak** parte hartuta. Enpresak aukeratutako produktu bakoitza boxgourmet saskian sartu da eta aldez aurretik enbaxadore gisa aukeratutako pertsonei banatu zaie saski hori, senitartekoekin edo lagunekin afari edo bazkari batean bertako produktuak dastatu eta baloratu ditzaten.

- Agro Design Pack. **4 nekazaritza-industria enpresak** eta 4 diseinu enpresak elkarrekin lan egin dute beren produktuen ontzia edo bilgarria hobetzeko diseinu berrian.

## 01/3.
## Sorkuntza, berrikuntza eta digitalizazioa

- Irungo Sorkuntza Industriaren katalogoa. **51 enpresa fitxa.**

- Antolakuntzaren berrikuntza: Batera Proiektua; langileek **3 enpresatan** izan duten parte hartzearen analisia.

- Berrikuntza irekia: Uztailaren 7an inguru nautikoetako teknologia berrien testa egin zen Hondarribiko hondartzan.

- SPRIren berrikuntza ez teknologikorako laguntzak aurkeztea: 4 enpresa

- wgZilar koloreko ekonomia: ekainak 7-8, jardunaldia, topaketak eta bisitak zentro teknologikoetara hurbileko zerbitzuen sektoreari aplikaturiko joerak eta teknologia berriak hurbiltzeko.



## 01/4.
## Xehekako merkataritzaren eta bertako produktuen lehiakortasunaren hobekuntza. Hondarribia Abian planaren barneko ekintzak.

- Bertako produktuen astea, apirilak 13-22, asteko egun guztietarako jarduera programa, bertako produktuekin eta ekoizleekin loturik.

- Eguberrietako merkatua: abenduak 8-9: Eguberrietako merkatua antolatu zen Itsas Etxean Hondarribiko 13 saltokiren eskaintzarekin eta jolas jarduerekin.

- "Hondarribia Fan Fan Fan" Eguberrietako kanpaina. 33 saltokik parte hartu zuten.

- Merkataritza sektorean lehiakortasuna hobetzeko prestakuntza.

  - Erakusleiho apainketa-Hondarribia Blues. **9 parte hartzaile**
  - Erakusleiho apainketa-Eguberriak. **20 parte hartzaile**
  - Marketin on-line. **16 parte hartzaile**
  - Datuak babestea. **11 parte hartzaile**




## 01/5.
## Mikro enpresei eta enpresa txikiei berrikuntzan eta lehiakortasunean laguntzea.

- **214 enpresa**. Laguntza bakarkakoa izan liteke, bai eta enpresek aurrera eramaten ditugun hainbat proiektutan parte hartuta ere.

## 01/6.
## Laguntza teknikoa Irungo merkataritza berritzeko planari

- Eguberrietako azoka: udal standa FICOBAn, **12 saltokik** hartu zuten parte.

- Eguberrietako merkatua: merkatua jarri zen San Joan plazan. Eguberrietako bost etxola izan ziren bakarrik bertako merkataritza produktuak eskaintzen zituztenak. Irungo 15 establezimenduk hartu zuten parte txandaka.




- Eguberrietako kanpaina: Izotz pista eta txirrista jarri ziren. Musika, argi eta soinu dinamizazio ekintzak.

- Singular Dendak programa. Gipuzkoako Merkatarien Federazioaren laguntzarekin eraman zen aurrera programaren bigarren edizioa eta 6 merkataritza establezimenduk hartu zuten parte.

- Merkataritza berritzeko diagnostikoak. Gipuzkoako Ganberarekin elkarlanean **2 merkataritza establezimendutan** egin ziren diagnostikoak.

- Merkataritza sektorean lehiakortasuna hobetzeko prestakuntza.

  - Paketeria-Eguberriak-.**12 parte hartzaile**
  - Datuak babestea, mailchimp. **30 parte hartzaile**

- Check-list **100 merkataritza establezimendutan** "Zein da merkatariek duten euren buruen ikuspegia" erradiografia lortzeko. Merkataritza mahaian eskatu zen azterketa hori.

## 01/7.
**KREA Bidasoa**, ekintzailetza, berrikuntza eta sorkuntza azoka. Martxoaren 22an egin zuen bere hamargarren edizioa.

# 02/ Formakuntza eta Enplegua.

Prestakuntza eta Enplegu Saileko jarduerek hiru ardatz estrategikotan izan dute eragina: entitate eta erakunde laguntzaileekin tokiko sareak indartzea enplegu, prestakuntza eta orientazio ekintzetan, ekintza berritzaileak bultzatzea pertsonek prosizionamendu hobea izan dezaten beren erabaki pertsonalak eta profesionalak hartzeko prozesuetan, eta solasaldi dinamiko eta iraunkorrean sakontzea Eskualdeko enpresa sarean.

Aipatzekoa da bi proiektu berritzaile jarri direla abian, berritzaileak izateagatik eta duten metodologia eta egitura osoagatik:

- GAZTEBILAN gazteei laneratzen laguntzeko programa berritzailea, Europako Funts Sozialaren Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren laguntzen barnean. 26 gaztek hartu dute parte eskualderako interesekoak diren bi ibilbide profesionaletan: Nazioarteko Merkataritza eta Community Manager.

- Eta luzaroan langabezian dauden pertsonak laneratzeko programa pilotua, profil oso zehatzarekin -45 urtetik gorako emakumeak, lan merkatutik urrun denbora luzea daramatenak-. Programa horrek aukera eman digu luzaroko langabeziaren errealitateen aniztasuna ezagutzeko, enpresa ingurua kolektibo baztertuenen alde sentsibilizatzen jarraitzeko eta metodologia berritzaile batzuk abian jartzeko.

## 02/1.
## Etorkizuna duten lanbideen El Espazio gunearen jarduerak eta garapenerako lankidetza

Etorkizuna duten lanbideen El Espazio gunean **6.336 zerbitzu** eman dira pertsonei enplegua eta prestakuntza lortzeko bidean laguntzeko.

Esku hartze pertsonalizatuak eta taldekako jarduerak egin ditugu Cité des Métiers metodologiari jarraiki eta pertsonei arreta emateko interes eremuak edo guneak erreferentziatzat hartuta: “Bilatu zeure prestakuntza”, ”Aurkitu zeure enplegua”, “Bideratu zeure etorkizuna” eta “Sortu zeure jarduera”. Aholkularitza pertsonalizatuaren mailan, orientazio, informazio eta laguntza zerbitzuak eskaini dizkiegu 828 laguni. Taldekako jarduerei dagokienean, **65 tailer** egin dira eta 800 lagunek baino gehiagok hartu dute parte. Enplegua aurkitzeko tresnei dagokiena da gehien eskatu den edukia eta horrekin loturik **42 tailer egin dira** eta **287 lagunek hartu dute parte**.

Egindako tailerren artean, aipatzekoak dira “Lanbide Heziketa eskualdean” informazio jardunaldia eta Nazioarteko Lan Mugikortasunari buruzko III. Jardunaldia, eskualdeko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Zentroek antolatuak. **400 lagun** inguruk hartu dute parte.

Asko erabiltzen den bitartekoa da Autoerabilera gela, 9 ordenagailu, Interneterako konexioa, eskanerra, inprimagailua eta enplegua lortzeko eta hobetzeko hainbat laguntza baliabide dituen gela. Bertan **1.934 zerbitzu** egin dituzte **317 lagunek**.



El Espazioren beste bereizgarrietako bat da garapenerako lankidetza sareen eraikuntza, komunitateko erakundeekin eta gizarte eragileekin eta prestakuntza zentroekin lan eginez eta kolaboratuz. Horren harira, **22 tailer** egin dira eta **174 lagunek** hartu dute parte. Horietatik % 57 emakumeak izan dira eta % 43 gizonak.

Oro har, El Espazioren jardueretan guztira parte hartu duten pertsonetatik % 49,2 gizonak izan dira eta % 50,8 emakumeak. Adinei dagokienean, % 43,9 45 urtetik gorakoak dira, % 29,1ek 36 eta 45 urte artean dituzte eta % 26,9 35 urtetik beherakoak dira.

## 02/2.
## Orientazioa eta Enplegu zentroa

Enplegurako orientatzeko ekintzak eta zerbitzuak garatzeko laguntzak egikaritzen hasi dira. Horietan **228 lagunek** hartu dute parte banakako prozesuetan eta **681 zerbitzu** jaso dituzte. Bestalde, taldekako 7 ibilbide egin dira eta **58 lagunek** hartu dute parte.

Era berean, Enplegu Zentroa Zerbitzua garatzeko laguntzak egikaritu dira, **172 lagunek** hartu dute parte eta 1.000 ordu baino zertxobait gehiago kontsumitu dituzte 1.094 sarralditan. Bestalde, taldekako 9 tailer egin dira eta horietan **27 lagunek** hartu dute parte.

## 02/3.
## Prestakuntza

Aurrez aurreko prestakuntzan **11 ekintza** jarri dira abian, eta **190 lagunek** hartu dute parte. Era berean, **13 ikastaro** egin dira online prestakuntza tutorizatuan eta **147 lagunek** hartu dute parte.

Enplegurako prestakuntzan 8 ikastaro eman dira, hauxe da, 1.066 prestakuntza ordu teoriko-praktiko eta 111 lagun kualifikatu dituzte. Horietatik % 25,2 emakumeak izan dira eta % 74,8 gizonak. Honako prestakuntza espezialitate hauek eman dira: Nazioarteko merkataritza, Community manager, Sukaldaritza, Oinarrizko ostatu zerbitzuak, Orga jasotzaileak (ziurtagiria) eta Laneko arriskuen prebentzioa eraikuntzan (ziurtagiria), igeltserotza, pintura, iturgintza eta soldatze espezialitateekin.



Bizitza osoko Ikaskuntza programaren esparruan aurrez aurreko 3 ikastaro egin ditugu eta 13 ikastaro online tutorizatuak, hauxe da, aurrez aurreko 64 prestakuntza ordu eta aurrez aurrekoak izan ez diren 218 prestakuntza ordu. 178 lagunek hartu dute parte, eta horietatik % 68,6 emakumeak dira eta % 31,4 gizonak. Aipatzekoa da 75 lagunek ziurtagiriak jaso dituztela Elikagaiak manipulatzeko eta alergenoak kudeatzeko ikastaroetan.

Era berean, **aulaNET – Bidasoa activa** online prestakuntza plataformak autoprestakuntzarako ehun ikastaro baino gehiago egiteko bide eman du. 201 matrikula erregistratu dira 52 ikastarotan.

Enplegurako prestakuntza ekintzetan, oro har, % 71,4ko laneratze maila lortu zen kontaktatutako 21 pertsonei begira. Honela banatua dago ehuneko hori: 6 lagun Jatetxe eta Tabernako (1. maila) oinarrizko jardueretan eta 9 lagun Sukaldaritza ikastaroan (2. maila).

## 02/4.
## Lan bitartekotza eta praktikak

Bidasoa bizirikek, Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako Enplegu Agentzia gisa, guztira 427 lan eskaintza kudeatu ditu 2018. urtean zehar, 887 lanpostu eskatzen zituztenak eta jasotako 5.896 hautagaitza aztertu dira.

Aipatzekoak dira gure eskualdean egin diren hiru enplegu azokak: bi Enplegu aste Bidasoa bizirikek antolatuak eta TURISLAN II. Enplegu azoka, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatua. 2018ko bi Enplegu asteen artean 176 enplegu profil eskaini dira, 72 erakundek eta 1.250 enplegu eskatzaile inguruk hartu dute parte. 246 lan elkarrizketa kudeatu ditugu 21 enpresatan. TURISLANen bidez guztira 74 enplegu profil kudeatu ditugu 32 enpresarentzat.









Era berean, udalen enplegua sustatzeko prozesuak kudeatu ditugu, 44 hautaketa prozesu egin ditugu Irungo Udaleko Tokiko Enplegu Planarentzat eta 7 Hondarribiko Udaleko Tokiko Enplegu Planarentzat. Bestalde, 12 enpresarekin kolaboratu dugu beren hautaketa prozesuetan.

Enpresetako lan praktikei dagokienean, 40 hitzarmen kudeatu dira enplegurako prestakuntza ikastaroetan parte hartu duten pertsonentzat.

Irungo Udalaren kontratatziorako laguntzak eta “Lehen Aukera” programako gazteak kontratatzeko laguntzak hedatzen lagundu dugu. Bi ekintza horietan eskualdeko 500 enpresa ingururekin jarri gara harremanetan eta Lehen Aukera programako hiru eskari kudeatu ditugu.

Laneko bitartekotza eta praktiken kudeaketa jarduerak egiteko garrantzitsua da gurekin kolaboratzen duten enpresak ezagutzea. Horretarako, enpresetara bisitak egiten ditugu eta haiekin zuzeneko komunikazioa dugu urte osoan zehar. 158 bisita egin ditugu enpresetara eta 1.275 kontaktu Eskualdeko enpresekin eta inguruko eskualdeetakoekin.

# 03/ Ekintzailetza eta Jarduera Berria.

Ekintzailetza eta Jarduera Berria Sailaren eginkizun nagusia da dagoen ekintzailetza gaitasuna identifikatzea eta ekintzailetza jarduera indartzea eskualdeko ekintzailetza indizeak handitzeko eta enpresa bideragarriak sortzeko.

Hori lortzeko, ekintzailetza integraleko estrategia berria garatu dugu eskualdeko Ekonomia garatzeko plan estrategikoaren esparruan (2017. urtean egina), era askotako zerbitzu eskaintza diseinatuta eta ekiteko nahia duten pertsonen eskura jarrita, ekintzailetzaren ziklo osoa harturik, ideia sortzearekin hasi eta enpresa gisa finkatu arte.

## 03/1. Izpiritu ekintzailea bultzatzea eta ekintzailetzaren balorizazioa

Helburu nagusietako bat da ekintzailetza kulturan aldaketa bultzatzea, apustu eginez ekintzailetza ikuspegi lorgarri eta erakargarri bilaka dadin izpiritu ekintzailea duten pertsonentzat.

Ekintzaileekiko dugun pertzepzioa aldatzeko, sentsibilizaziorako eta ekintzailetzan gaitzeko ekintzak egiten ditugu, batez ere eskualdeko Lanbide Heziketako Zentroetako ikasle gazteekin.

Esparru horretan aipatzekoa den ekintza bat da eskualdeko LHko zentroekin batera aurrera eramaten den programa berrikuntza irekiaren testuinguruaren barnean. Ekintza horretan eskualdeko enpresek hartzen dute parte eta Mondragon Unibertsitatearen Mondragon Team Academy taldearen eta Tknikaren laguntza du gainera. 850 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte eta sortutako negozio ideien prototipatze azkarraren inguruan egin da lan.



## 03/2.
## Laguntza enpresa proiektua sortzeko eta finkatzeko prozesu osoan

Aurten lehenbiziko aldiz egin da Bidasoan ekintzailetzarako Beka Programa. Haren helburua da izpiritu ekintzailea bultzatzea enpresa ekimenetan lagunduz, talentua, berrikuntza eta sorkuntza bultzatuz. Zenbateko ekonomikoaz gain, toki bat eskaintzen da Bidasoa biziriken coworking gunean.




Enbrioi fasean ere jarduten da Ideiatik Negozio Aukerara programaren bidez, ekiteko nahia duten baina oraindik beren ekintzailetza proiektua burutu ez duten pertsonei zuzendua. Learning by doing, applying theory into practice (eginez ikasi, praktikan teoria aplikatuz) ikaskuntza prozesuaren bidez garatzen da.
Programa honetan pertsona parte hartzailean oinarritzen da metodologia, hura izan dadin bere ikaskuntza prozesuaren ardatza eta gidari edo bideratzaile eginkizuna izaten du mentoreak. Bigarren edizioa egin da Irun Ekintzanen babesean eta 9 proiektu bideratu dira. Hondarribia Abian planaren barnean, berriz, lehen aldiz egin da eta 7 ekintzailek hartu dute parte.

Enpresak sortzeko esparru honetan, urtean zehar eskaini den zerbitzuen katalogoak honako hauek hartzen ditu:

### 03/2.1.
### Informazioa eta aholkularitza

Ekintzaileek beren negozio ideia garatzeko fase guztiak hartzen ditu, ideiaren hasierako azterketarekin hasi eta dagozkion negozio planak eta ekonomia eta finantza bideragarritasunaren planak egitearekin buka.
Jarduera maila handia izan da, eta 474 laguni eman zaie arreta.

### 03/2.2.
### Prestakuntza/gaikuntza enpresa kudeaketan

Arrakasta lortzeko oinarrizko alderdiei buruzko prestakuntza ekintzak dira, esate baterako: arriskuak, lege faktoreak, lan eta zerga alderdiak, datuak babestearen, jabetza intelektualaren eta finantzaketaren eta mugaz gaindiko jardueren alorretakoak. Gaitze ekintza horietan 79 ekintzailek hartu dute parte.



## 03/3.
## Coworking gela

Ekintzaileentzako gela da beren negozio ideiak eta enpresa proiektuak bertan garatzeko, elkarlanean eta sareko lan giroan. Ideiak trukatu eta antzeko ekimenen edo ekimen osagarrien artean sinergiak sor ditzakete gune horretan. Aurten 15 coworkerrek lan egin dute eta 12 proiektu bultzatu dituzte.
2018ko maiatzean estreinatu zen coworking gune berria Ducoureau jauregian, eta ekipamendua hobetu da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera optimizatu ahal izateko.

## 03/4.
## Enpresa zentroa

Negozioa Irunen **Ficoba, Arrretxe-Ugalde eta Zaisan** eta Hondarribian **Puntalean** ostatatuta zerbitzu osagarriak eskaintzen dira eta haietan egokitzen diren enpresa berriei ostatalekuaz gainera, beharreko informazioa, aholkularitza eta estaldura ematen zaie beren jarduera garatzeko eta finkatzeko.
Gaur egun guztira 28 pertsonak eta 23 enpresak egiten dute lan.

## 03/5.
## Berrikuntza, sorkuntza eta negozio eredu berrien sorrera

Ekintzailetza inguruak eta guneak garatzea eta dinamizatzea pertsonen gaitasuna hautemateko, batez ere sorkuntza industrien alorreko jarduerei begira. Horretarako, Irun Factory dugu, gune malgu gisa eratua, bertan Maker gunea dago, prestakuntza ekitaldiak, saioak eta programak egiteaz gain. 2018an Irun Factoryn egindako ekintzen barnean honako hauek ditugu:

**Maker 4.0**. Programa egiaztatua eta ziurtatua. Programa honi esker, parte hartu duten 11 lagunek ekintzailetza proiektuak kudeatzeko oinarriak eskuratu dituzte, eta hainbat diziplinatan sakondu dute: plangintza, antolakuntza, motibazioa, negozio ereduen diseinua, goraka ari den teknologia eta prototipoak, baliabideen kontrola eta komunikazioa. 11 lagunek egin dute programa hau.

**Ateak Zabalik Maker gunean**. Honen helburua da pertsona sortzaileak elkartzeko jarduerak bultzatzea, teknologia berriak sustatzea eta hedatzea, berrikuntza eta prototipatzea eta elkarlanean esperimentazioa eta ekintzailetza bultzatzea, soluzio berritzaileak sortzeko. Jardunaldi horietako 6 egin dira, eta 86 lagunek hartu dute parte.

**Ekin asteazkenetan.** Hileko hitzordua ekintzaileekin eta enpresa sortu berriekin haien sorkuntza miatzeko eta ustiatzeko teknologiarekin eta ezagutzarekin konbinatuta (eskaneatzea, diseinua eta inprimatzea 3Dn, Big Data, marketin digitala, zibersegurtasuna eta abar). Jardunaldi horietako 10 egin dira, eta 138 lagunek hartu dute parte.




**Aholkularitza teknologikoak** enpresen eraldaketa digitalean laguntzeko (SPRIrekin elkarlanean). Taldekako 10 saio egin dira, eta 72 lagunek hartu dute parte.

3 Storytelling tailer zikloa artistei eta kultur enpresei zuzendua. Bakoitzean 15 lagunek hartu dute parte.

**Tech tailerrak**, haurrentzat, nerabeentzat eta gazteentzat diseinuaren, ingeniaritzaren, artearen eta sorkuntzaren alorretan, teknologia berriak eta programazioa jolas moduan miatu ditzaten, eskolako oporraldiak aprobetxatuz.
8 tailer teknologiko egin dira Irun Factoryn eta 8 tailer Hondarribia Abianen esparruan. Guztira 267 haur eta gaztek hartu dute parte.

Aipatzekoa da **KREA BIDASOA** ekitaldia, **ekintzailetza, berrikuntza eta sorkuntza azoka**. Ikasleen eta ekintzaileen artean 380 lagunek hartu dute parte ekintza honetan.

**Interneten presentzia, hedapenerako eta komunikaziorako tresna gisa.**
**Ideiak Bizirik blogean** izena eman duten pertsonak 943 izan dira, eta % 28ko hazkundea izan du aurreko urtearekiko. Blog honek aukera ematen du informazioa modu errazean bilatzeko, eta ekintzaileek eta enpresek beren jarduera aurrera eramateko eskura ditzaketen laguntza eta diru laguntza guztien informazioa ematen du.

Bukatzeko, aipatzekoa da **Lanbiderekin Hitzarmena** sinatu dela ekintzaileei laguntzeko laguntzen esparruan **negozio ideia bat analizatzeko eta garatzeko (APEI) eta enpresa jarduera berriak abian jartzeko (APEA) prozesuetan laguntzeko eta tutorizatze lana egiteko**. 21 lagunek hartu dute parte.

# 04/ Turismoa.

Proiektu garrantzitsuenetako bat izan da Hondarribirako eta Irunerako turismoa dinamizatzeko plana diseinatzen hastea. Plan horrek definituko du gure plan operatiboa gure posizionamendu turistikoa hobetzeko, dauden produktuak indartzeko edo lehiakortasuna bultzatzeko turismo produktu berriak sortzeko.

Lanean jarraitu dugu lankidetza publiko-pribatuko jarduerak egiten turismo mahaien, mahai azpisektorialen eta produktua garatzekoen bidez.

Basquetour-ekin lanean jarraitu dugu definitutako produktu lineetan; surfing, enogastronomia, Euskal Kostaldea... eta sortu diren beste linea berri batzuetan, esate baterako, Dog Friendly, Family Friendly edo Industria turismoaren ibilbidea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik turismo mahaietan parte hartu dugu, bai eta Gipuzkoako turismo plan estrategikoaren garapenean ere.

Aurten jarduera garrantzitsuetako bat izan da www.bidasoaturismo.com webgunea berritzea. Ekintza hori garapen fasean dago.

Irunen Pirinioetako Burdinaren Ibilbideari atxikitzea onartu da. Irungo kasuan Irugurutzetako Meatze Gunea eta Oiasso bultzatuko dira. Era berean, Irun Berdea app-a eta eremuan dauden seinaleak hobetu dira. Sortu berri den Atlantikoko Erromatar Hirien Sareak bultzada emango digu sarean lan egiteko eta erromatar ondarea sustatzeko.



Hondarribian Erdi Aroko Sarea sustatzeko ekintzak bultzatzen jarraitu dugu web orriaren bidez, bai eta nazioarteko pintxo lehiaketa ere.

Era berean, sektore nautikoarekiko komunikazio kanpaina egin da eta gastronomia landu da tokiko produktuaren astearekin.

Eskualdeko turismo sektorearen lehiakortasunari dagokionean, Jardunbide Egokien programa bultzatzen jarraitu dugu eta IKTen Jardunbide egokien programari ekin zaio.

Hitzarmen bat sinatu da Film Commissionekin, eskualdean ikus-entzunezkoen filmaketak antolatzea sustatzeko eta, horrela, ikus-entzunezkoen industriak berekin dakartzan aberastasuna, enplegua eta kanpo proiekzioa lortzeko.

## 04/1. Lankidetza publiko-pribatuko jarduerak. Produktua garatzea

- Turismo mahaien eta azpisektoreko mahaien eta Produktuaren Klubaren antolamendua eta koordinazioa: Surfing produktuen kluba, enogastronomia eta nautika produktuen kluba.

- Parte hartze eta bultzatze ekintzak Irungo Udalarekin:

- Dies Oiassonis jaialdia
- Atlantikoko Erromatar Hirien sarea

- Parte hartze eta bultzatze ekintzak Hondarribiko Udalarekin eta Erdi Aroko Hirien Sarearekin. Komunikazio ekintzak sektore nautikoarekin eta gastronomia jarduerak tokiko produktuen astearen bitartez.

- Enogastronomia esperientzia berriak hautematea eta garatzea Hondarribian eta Irunen, eskualdeko 14 enpresak parte hartuta.



## 04/2. Turismo lehiakorra sustatzeko jarduerak

- Jardunbide Egokiko kalitate programa. Eskualdeko 24 establezimenduk parte hatu dute.

- IKTen Jardunbide Egokiko kalitate programa. 2 enpresak parte hartu dute.

-Kalitate ziurtagiriak.”Q” kalitate turistikoa eta ISO.

## 04/3. Informatzeko, garatzeko eta sustatzeko jarduerak.

- Turismoaren sustapena Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Euskal Kostaldeak antolatutako ekitaldietan, bai eta Euskadi Helmugak Markarekin ere. Madrilen, Iruñean, Donostian, Bilbon, Valentzian eta Valladoliden eginak.




- Turismoaren sustapena Ficoban antolatutako publiko handiko 5 azokatan.

- Sustapena hainbat komunikabidetan, esate baterako Sud Ouest, Iparraldeko merkatuan eraginez, Gipuzkoa Kostako helmugekin batera.

- Turismo informaziorako eta turismoa sustatzeko euskarrien argitalpena eta berrargitalpena; eskualdeko foiletoak hainbat hizkuntzatan, planoak, gida gastronomikoa, zerbitzu nautikoak, Pintxoen gida, Irun Berdea, Esperientzia gastronomikoak…

- Hondarribiko eta Irungo bideo turistikoa egiteko kontratazioa.

- Bisitariei eta turistei arreta eskaini zaie urte osoan zehar Eskualdeko bulegoetan. Kirol Kaia ixtean behin-behineko turismo informazio gunea ireki zen Portua auzoan uztailetik abendura.

- Eskualdean eta urtean zehar izandako kirol eta kultura ekitaldietan lagundu dugu turismoa sustatzeko materiala banatuz.



- Idazkaritza Teknikoa garen aldetik, Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sarean parte hartzen duten gainerako udalerriekin koordinatu ditugu ekintzak.

- Idazkaritza Teknikoa garen aldetik, Atlantikoko Erromatar Hirien Sarean parte hartzen duten gainerako udalerriekin koordinatu ditugu ekintzak.

- Gipuzkoako Kostaldea, Euskadiko Kostaldea eta Euskadiko Helmugak marketan parte hartu dugu.

- Itourbask Turismo Bulegoen euskal sarea berritzea urte osoan zabalik dauden 2 bulegoetan eta Portua auzoko behin-behineko informazio gunea sareari atxikitzeko eskaera.

## 04/4.
## Sareak

- Hendaiarekin baterako proiektuak bultzatu ditugu Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez.

- Idazkaritza teknikoaren lana egin dugu, eta horrenbestez, Erdi Aroko Hirien Sarea koordinatu dugu.

- Idazkaritza teknikoaren lana egin dugu, eta horrenbestez, Atlantikoko Erromatar Hirien Sarea koordinatu dugu.

- Europako proiektuetan parte hartu dugu Bidasoa bizirikeko beste sail batzuekin batera.

## 04/5.
## Turismo informazio zerbitzua

Bidasoa eskualdeak hiru gune dauzka turismo informaziorako, bi Hondarribian daude eta bat, Irunen. Ondoan islatzen dira bulegoetan bildutako datuak.

**Turismo bulegoetan izandako bizitak: 115.469**

**Fans facebooken: 14.300**

**Bizitariak, guztira: 34.796**
**www.bidasoaturismo.com**

**Kontsulta motak bertan egindakoak**









# 05/ Behatokia, Europako Lankidetza /Partzuergoa.

2018. urteaz geroztik, Bidasoa bizirikek sail berri bat du “Behatokia, Europarekiko Lankidetza eta Partzuergoa”. Sail operatiboei laguntza ematen dieten jarduera funtzionalen koordinazioa eta jarraipena egiten du, esate baterako, eskualdeko datu sozioekonomikoak bildu, aztertu eta hedatu Bidasoko Hiri Behatokiaren bidez, intereseko proiektuak garatzeko egon daitezkeen Europako finantzaketa ildoak ikertzen ditu eta mugaz gaindiko lankidetza proiektuak bideratzen ditu Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoarekin hitzartuta.

Bidasoko Hiri Behatoki berria aurkeztu da aurten, irudi berriarekin eta informazio sozioekonomikoaren ataletatik nabigazio intuitibo eta atseginagoarekin hura erabiltzen duten pertsonentzat eta enpresentzat.

Mugaz gaindiko lurraldeko lankidetza proiektuei dagokienean, aipatzekoa da aurten jarraitu dugula POCTEFA programako 2016ko deialdian onartutako proiektuetako jarduera programarekin (Espainia-Frantzia-Andorra lurraldeko Lankidetza Programa).

## 05/1 Bidasoko Hiri Behatokia

https://observatorio.bidasoa-activa.com/es/

- Erabaten web euskarria eguneratzeko lana garatzea, hala diseinuari nola edukiari eta informazioaren tratamenduari dagokienean.
- Bidasoko Hiri Behatoki berriaren aurkezpena eta hedapena.
- Enplegu eta kontratazioko hileko buletinak.

- Bidasoa Eskualdeko enpleguaren eta kontratazioaren urteko txostena.
- Irungo merkataritzaren dinamismoari buruzko urteko txostena.

## 05/2. Mugaz gaindiko lurraldeen arteko lankidetza proiektuak

2017an hasi ziren mugaz gaindiko lankidetza proiektuak, Lurraldea Garatzeko Europako Funtsak (FEDER) % 65ean kofinantzatuak Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Programaren bidez. Proiektu horiek aurrerapen handiak izan dituzte 2018. urtean.

CONNECT INNOVATION BAI! ekimenak eskualdeko enpresentzako jarduera programa handia jarri du abian, berrikuntza joerekin eta espezializazio estrategia adimendunekin konekta daitezen.
**http://www.bidasoa-sudpaysbasque.com**

IBILBIDE BEREZIAK, kultur turismoa sustatzeko mugaz gaindiko hiri sortzaile txikien eta ertainen sarearen esparruan, Irungo Udalaren Hiri Bulkada Arlotik ixten joan da Sorkuntza Industria bultzatzeko jardueren zikloa. Kultura Arloak Auzo Sortzailea eta Kontenporanea edizio berriak antolatu ditu, bai eta artisten egoitza ere Gabriel Vallecillo hondurastarrarekin.
**http://www.rutas-singulares.eu/**

Bizikleta pisten EDERBIDEA sarea osatzen doa Azken Portu eta Behobia arteko bizikleta bide pasealeku zatiarekin Bidasoa ibaian zehar.
**http://ederbidea.com/**

Hondarribiko Udalak Iruñea eta Baionarekin batera parte hartzen duen CREACITY proiektua amaitzen ari da bere “Hiru hiri, harresi bat” eskaintza, kultur, historia eta gastronomia ibilbidea aipaturiko hiribildu horietan barrena. **https://creacity.eus/es/**

Azkenik, SMARTMOB proiektuaren bidez, Irungo Udalak, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak eta Hondarribiko Udalak elkarturiko bazkide gisa aukera izan dute mugikortasun soluzio adimendun eta iraunkorren garapenean parte hartzeko, esate baterako, Irunbusen L1 autobus elektrikoaren linea abian jartzea, Zaisa eta Irungo Ospitalea lotzen dituen linea, eta mugaz gaindiko mapa bat argitaratzeko oinezkoentzako, bizikletentzako eta baterako garraiorako ibilbideekin.

## 05/3 Partzuergoa

### Mugaz gaindiko lankidetzarako 20 urteko hitzarmena Irun, Hondarribia eta Hendaia udalerrien artean.



1998ko abenduaren 23an sinatu zen lehenengo hitzarmena.



Abenduaren 21ean sinatu zen Mugaz Gaindiko Lankidetzarako hirugarren Hitzarmena Irungo, Hondarribiko eta Hendaiako udalen artean lehen aldiz sinatu zenetik 20 urte igaro ondoren.



Aipatzekoak dira urte horietan izan diren aurrerapenak turismo informazioaren eta sustapenaren alorretan, baterako zenbait sustapen tresna garatu baitira, esate baterako, Badiako mapa ilustratua edo **www.irunhondarribiahendaye.com** web ataria.

## 05/3.1.
## Mugaz gaindiko kirolaren sustapena

Ahalegin handia egiten jarraitzen dugu mugaz gaindiko kirola sustatzeko, batez ere gazteen artean, Kirol Jaiarekin, kirol elkarteen arteko lankidetzarekin eta Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko futbol selekzioarekin.

Honako hauek dira Bidasoa Txingudi eskualdean antolatzen diren mugaz gaindiko kirol ekitaldiak: Txingudi Korrika, Bidasoko Itzulia, eta Bidasoa ibaiaren nazioarteko jaitsiera hegatsekin.

Era berean, Irungo, Hondarribiko eta Hendaiako udalerrietako kirol jaiaren beste edizio bat egin da Ficoban, eta 800 gaztek hartu zuten parte.



## 05/3.2.
## Turismoa, mugikortasuna eta ingurumena

Aurten mugikortasun eta turismo arloetan berrikuntza handia izan da POCTEFA Europako funtsek SMARTMOB mugikortasun adimenduneko proiektua onartu izana.

Proiektuaren helburu espezifikoa da mugaz gaindiko garraio iraunkorraren eskaintza hobetzea, pertsonen eta merkantzien mugaz gaindiko joan-etorriak eta mugikortasuna bultzatzeko.

Pertsonentzako mugikortasun soluzio adimendunak eta iraunkorrak aztertu, diseinatu, garatu eta integratu nahi dira mugaz gaindiko Bidasoa Sud Pays Basque lurraldean.

Partzuergoak bere gain hartu du, udal zerbitzuen eta turismo bulegoen laguntzarekin, mugikortasun plana diseinatzeko lana paperean nahiz bertsio digitalean, bai eta lurralde dinamizazioa ere Hegobusen eta Irunbusen lineen arteko lotura berriari esker sortzen ari den garraioaren mugaz gaindiko sarearen inguruan.

## 05/3.3.
## Kultur programa eta euskara

Eskualdeko kultur agentziak hiru hirietako kultur jarduera nagusiak jasotzen ditu badiako hiru hizkuntzetan, Bidasoko Mugaz Gaindiko Partzuergoaren aisia eta turismo atarian duen agenda atalean **www.irunhondarribiahendaye.com** eta smartphone-entzako bertsioa **www.bidasoa.mobi.**

BidasoaFolken 18. edizioa egin da. Ekitaldi horri esker, musika etniko, akustiko eta garaikidearen kontzertuez goza daiteke hiru egunez hiru hirietan.

Kulturaren eta eleaniztasuna sustatzearen alorrean urte hauetan hainbat ekimen bultzatu dira, esate baterako, Bertso eskola, Bidasoa Folk, eta hiru hirietako historia, kultura eta natura ondareari balioa handitzea Badiako bidearen bitartez.

Partzuergoak, Euskal Hirigune Elkargoarekin eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera, SAREUSKA lan sarearen bidez, Mintzodromoa bultzatzen du hiru eskualdeetako mugaldeko merkataritza guneetan euskararen erabilera bultzatzeko.



# PROIEKTUAK/






## /**KREA BIDASOA** 2018, martxoak 22 Ekintzailetza, berrikuntza eta sorkuntzaren jardunaldia

Bidasoa bizirikek antolatzen duen Krea Bidasoaren hamargarren edizioa izan da oraingoa. Haren helburua da Bidasoa eskualdeko ekintzaileen, enpresen, unibertsitatearen eta prestakuntza zentroen artean lankidetzarako eta esperientzia berritzaileak trukatzeko guneak sortzea.

Ekitaldiaren irudia X izan da (10 zenbaki erromatarretan) eta horrekin Krea Bidasoaren 10 urteak ekarri nahi dira gogora. “X urte eraikitzen” zuri eta beltzean izan da leloa. Kasu honetan bertaratutakoek eta parte hartzaileek eman diote kolorea.

Krea Bidasoaren 10 edizioak irudikatu dituzten 10 kartelak erakutsi ziren.




2009




2010




2011




2012




2013




2014




2015




2016




2017

## /CONNECT Innovation bai!
POCTEFA
Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa 2014-2020

Bidasoa bizirikek CONNECT Innovation bai! proiektua gauzatzen du 2016. urteaz geroztik, Lurraldea Garatzeko Europako Funtsak (FEDER) % 65ean kofinantzatua Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Programaren bidez.

Irungo Udalarekin, Euskal Hirigune Elkargoarekin, Mondragon Unibertsitatearekin, ESTIA Ecole Supérieure des Technologies Avancées eskolarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko GAIA Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Teknologien Industrien Elkartearekin batera lanean ari gara Bidasoa Sud Pays Basque lurraldea enpresek, ekintzaileek eta bertako biztanleek, oro har, berrikuntzan eta sorkuntzan sarbidea izateko lurralde bilakatzeko.




Zehatz esateko, 2018an hainbat jarduera egin dira joera berriak ezagutzera emateko, eskualdeko enpresek eta ekintzaileek ideia berritzaileak aurrera eraman ditzaten eta beren zerbitzuak eta produktuak hobetu ditzaten.

“Mugaz gaindiko berrikuntza ibilbidek", esate baterako, hiru “geldialdi” izan zituen, hainbat topaketa, hitzaldi, tailer, lehiaketa eta bisita, zilar koloreko ekonomiaren sektorean, eraikuntzan, surf oholen fabrikazioan eta webgunearen bidez negozioen azeleratzaile gisa teknologia berriak aplikatzeak eskaintzen dituen enpresa aukerak ezagutzeko.



Sektore nautikoan jarraituz, udan Txingudi Lab Txingudi Badiako mugaz gaindiko laborategiaren bigarren proba pilotua egin zen pilotuak garatzeko eta Euskadiko enpresen punta-puntako teknologiak testatzeko, enpresa txiki eta ertainak, klusterrak eta start-up teknologikoak, sektore nautikoan teknologiak garatzen ari direnak hainbat esparrutan, segurtasuna, instrumentazioa, sektorea bultzatzeko elementu berriak.

Eskualdeko ekimen ekintzaileak bultzatzeko, bisitak programatu dira Tolosa Okzitaniako Fabrikazio Digitalaren munduko kongresura eta MAKER FAIRE BILBAORA, tailerrak, ateak zabalik jardunaldiak eta sorkuntza guneak prestatu dira Irun Factoryn, Irungo Udalaren laguntzarekin.

Proiektuaren web orrian eskuragarri daude informazioa eta argitalpen guztiak:
**www.bidasoa-sudpaysbasque.com**



## Ekintzailetza

**/474**
Pertsonari eman zaie arreta

**/81**
Burututako bideragarritasun planak

**/766**
Pertsonak prestatu dira ekintzailetza prozesuetan

**/850**
Lanbide Heziketa zentroetako pertsonek parte hartu dute ekintzailetza ekintzetan

## Enpresa

**/49**
Lehiakortasuna eta transformazio digitala hobetzen ari diren enpresak

**/214**
Hainbat ekintzatan parte hartu duten enpresak

**/6.500**
Empresa daude Innov Mugabe webaren direktorioan eta denak Bidasoa-Sud Pays Basque eremukoak dira

**/5**
Proiektu dira indarrean mugaz gaindiko lurraldeko lannkidetzakoak, POCTEFA 2014-2020

## Gaitasun profesionala eta enplegua

**/6.336**
Pertsonari arreta eman zaie etorkizuna dutenlanbideen El Espazioan

**/800**
Pertsona aritu dira orientzaioan, enplegu bilaketan eta diseinu profesionalean

**/427**
Lan-eskaintza

**/146**
Eskaintza gestionatu dira enplegurako 2 asteetan

## Prestakuntza

**/190**
Pertsona prestatzen ari dira, aurrez-aurreko

**/11**
Prestakuntza-ekintza

## Turismoa

**/34.796**
Pertsonari arreta eman zaie interneten

**/115.469**
Pertsonari zuzeneko arreta eman zaie

**/11**
Ekintzak egin dira turismoa sustatzeko

# 2018/ BIDASOA BIZIRIK KOPURUTAN

Behe Bidasoa eskualdeak guztira 79.533 biztanle zituen 2018ean, eta horrenbestez, $km^2$-ko 1.110,8 biztanleko dentsitatera iritsi da dagoeneko.

LANBIDEK eskainitako datuen arabera, 37.049 lagunek osatzen dute Bidasoa eskualdeko biztanleria aktiboa, 2018an. LANBIDEn izena emaniko langabetuen kopuruari dagokionean, abenduaren 31an 4.029 langabetu dira guztira, eta horrek esan nahi du %10,8 ingurukoa dela langabezia tasa biztanleria aktiboaren gainetik. Era berean, 2018. urtean formalizaturiko kontratuak 27.498 dira guztira. Aipatzekoa da, Gipuzkoan guztira eginiko kontratuei dagokienean %9,4koa dela eskualdeko kontratuen partaidetza, aurreko urtekoa baino antzekoa izanik ehuneko hori.

2018ean gizarte segurantzarako afiliazioak 24.007 pertsona dira, 19.076 Irunen eta 4.931 Hondarribian.

Eskualdeko hezkuntza zentroetako ikasleak 11.849 ziren. Matrikulazioen %67 ikastetxe publikoetan egin da eta gainerako %33 zentro pribatuetan. Bidasoako kanpusean (Mondragon Unibertsitatea) 297 ikasle ari dira guztira, bai eskualdekoak bai beste udalerri batzuetakoak.

Eskualdeko enpresa ehuna, berriz, 6.609 establezimenduk osatzen dute 2018an; horietan 26.782 langile ari dira, eta horietatik %78 hirugarren sektorean ari dira lanean.

Lehen sektoreari dagokionean, aipatzekoa da, Hondarribiko ontzidiak aurrera eramaniko arrantza jarduera bikaina, 24 ontzi eta 266 marinelekin, kontuan izanik soilik baxurako azpisektorean jarduten dutela. 2018ko kanpainan 9.420 tona arrain atzeman zituzten.

Eskualdeko industri sektorea 388 establezimenduk osatua dago eta 3.988 lagun ari dira horietan lanean. 3.835 Irunen eta 153 Hondarribian.

Eraikuntzari dagokionean, eskualdean 976 establezimendu daude eta 1.513 langile ari dira horretan lanean.

Eskualdeko hirugarren sektorea (zerbitzuak) 5.149 establezimenduk osatzen dute guztira, eta 20.814 lagun ari dira horretan lanean.

Sektore horren barnean aipatzekoak dira:

### Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak 1.043 ziren guztira, horietatik %86 Irunen daude. Eskualdeko merkataritza dentsitatea 13,11 establezimendu da 1.000 biztanleko.

### Turismoa

Eskualdeko turismo baliabideak pixkanakapixkanaka handitzen ari dira eskualdera turista gehiago erakarri ahal izateko. 2018. urtean 47 ostatu establezimendu zeuden eskualdean. Establezimendu horiek 2.528 plaza eskaintzen dituzte guztira. Urte berean zehar, 1,7 egun izan dira bisitariek batez beste eman dituzten gauak.

Eskualdeko hotel okupazioak %70ko okupazioa izan zuen urtean batez beste.

### Garraioa eta Logistika

Eskualdean 311 dira errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak, horietatik %62ek ibilgailu astunak erabiltzen ditu eta gainerako %38ek ibilgailu arinak. Aurreko urteetako datuei dagokienean, ikusten da areagotu egin dela eskualdean kokaturiko enpresen kopurua.

# 2018/
# URTEKARI SOZIOEKONOMIKOA



# 08/
# Demografia eta gizartea

## 08/1. Demografia

**Behe Bidasoako biztanleria, biztanleriaren %-ekoa** **2018**




Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Bizt. Kop.** | **%** | **Bizt. Kop.** | **%** | **Bizt. Kop.** | **%** |
| **Sexua** | | | | | | |
| · Gizonak | 30.637 | 48,9 | 8.410 | 49,8 | 39.047 | 49,1 |
| · Emakumeak | 32.020 | 51,1 | 8.466 | 50,2 | 40.486 | 50,9 |
| **Guztira** | **62.657** | 100 | **16.876** | 100 | **79.533** | 100,0 |
| **Adina** | | | | | | |
| · 0-14 | 8.694 | 13,9 | 2.422 | 14,4 | 11.373 | 14,3 |
| · 15-29 | 8.969 | 14,3 | 2.399 | 14,2 | 10.928 | 13,7 |
| · 30-44 | 12.995 | 20,7 | 3.146 | 18,6 | 16.704 | 21,0 |
| · 45-59 | 14.457 | 23,1 | 3.993 | 23,7 | 18.129 | 22,8 |
| · 60-74 | 10.867 | 17,3 | 3.202 | 19,0 | 13.892 | 17,5 |
| · 75-89 | 5.820 | 9,3 | 1.533 | 9,1 | 7.207 | 9,1 |
| · 90 eta gehiago | 855 | 1,4 | 181 | 1,1 | 968 | 1,2 |
| **Guztira** | **62.657** | 100 | **16.876** | 100 | **79.533** | 100 |

Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala

**Biztanleriaren bilakaera** (2008 urtea: basea 100) **2008-2018**




Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala, INE eta Eustat



**Azalera eta biztanleriaren dentsitatea Behe Bidasoan** **2018**

| | Azalera (km²) | Biztanleria | Dentsitatea (bizt./km²) |
|---|---|---|---|
| **Behe Bidasoa** | **71,6** | **79.533** | **1.110,8** |
| Irun | 42,8 | 62.657 | 1.463,9 |
| Hondarribia | 28,8 | 16.876 | 586,0 |
| **Gipuzkoa** | **1.980,3** | **720.592** | **363,9** |

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

# 08/02. Prestakuntza

**Matrikulazioak univertsitatez kanpoko prestakuntza arautuko zentroetan** **18/19 ikastaroa**

| | Irun | | | Hondarribia | | | Behe Bidasoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Publ.** | **Prib.** | **Guzt** | **Publ.** | **Prib.** | **Guzt** | **Publ.** | **Prib.** | **Guzt** |
| Haur/lehen/bigarren hezkuntza (1) | 4.893 | 2.192 | 7.085 | 1.342 | 1.039 | 2.381 | 6.235 | 3.231 | 9.466 |
| BATXILERGOA | 705 | 279 | 984 | 85 | 107 | 192 | 790 | 386 | 1.176 |
| E.M.H.Z. (2) | 412 | 52 | 464 | - | - | - | 412 | 52 | 464 |
| G.M.H.Z. (3) | 556 | 107 | 663 | - | - | - | 556 | 107 | 663 |
| Beste batzuk | 0 | 80 | 80 | - | - | - | 0 | 80 | 80 |
| **Total** | **6.566** | **2.710** | **9.276** | **1.427** | **1.146** | **2.573** | **7.993** | **3.856** | **11.849** |

(1) Haurtzaindegiak eta 2 urtekoen gelak barne daude; (2) Erdi mailako prestakuntza zikloak; (3) Goi mailako prestakuntza zikloak.
Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala,

**Behe Bidasoako ikasleen matrikulazioak unibertsitateetan** **18/19 ikasturtea**

| | matrikulaturiko ikasle kop |
|---|---|
| **Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)** | **1.036** |
| Gipuzkoako Kanpusa | 733 |
| Bizkaiako Kanpusa | 164 |
| Arabako Kanpusa | 139 |
| **Deustuko Unibertsitatea* (Donostiako Kanpusa)** | **160** |
| **Nafarroako Unibertsitatea (TECNUM, Donostiako Kanpusa)** | **61** |
| **Mondragon Unibertsitatea** | **95** |

Iturria: UPV/EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Deustoko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea

*Azkeneko datua

**Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako Kanpusa** **18/19 ikasturtea**

| | matrikulaturiko ikasle kop. |
|---|---|
| Gradua Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan | 181 |
| Ekintzailetza eta Berrikuntza Lidergo gradua | 116 |
| **Guztira** | **297** |

Iturria: Mondragon Unibertsitatea



# 09/
# Lan merkatua

## 09/1. Enplegua

| Biztanleria aktiboa Behe Bidasoan | 2018 |
|---|---|
| Irun | 28.958 |
| Hondarribia | 8.091 |
| **Behe Bidasoa** | **37.049** |
| Gipuzkoa | 345.809 |
| EAE | 1.068.002 |

Iturria: Lanbide

## 09/2. Kontratazioa

### Behe Bidasoa eta Gipuzkoan formalizatutako kontratuak

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| Behe Bidasoa | 19.857 | 22.000 | 23.588 | 25.835 | 27.498 |
| Gipuzkoa | 220.771 | 253.413 | 268.547 | 280.696 | 291.885 |
| **% Eskualde/Gipuzkoa** | **9,0** | **8,7** | **8,8** | **9,2** | **9,4** |

Iturria: Lanbide

| Behe Bidasoan kontrataturiko pertsonen profila | 2018 |
|---|---|
| Sexua | Gizona (51%) |
| Adina | 25 urtetik 44 urtera (55%) |
| Kontratuaren iraupena | Zehaztutako iraupena (88%) |
| Kontratuaren lege sailkapena | Behin-behineko zirkunstantziala (64%) |
| Ekonomi sektorea | Zerbitzuak (75%) |

Iturria: Lanbide

## 09/3. Gizarte segurantzarako afiliazioak

### Afiliazioak Behe Bidasoan, motaren arabera

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| Erregimen orokorra | 14.767 | 14.942 | 15.804 | 16.506 | 16.841 |
| Autonomoak | 6.307 | 6.255 | 6.287 | 6.162 | 6.148 |
| Erregimena (Nekazaritzakoa, Itsasoa eta Etxeko enpleg.) | 981 | 1.223 | 1.048 | 1.049 | 1.018 |
| **Guztira** | **22.055** | **22.420** | **23.139** | **23.717** | **24.007** |

Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra



# 09/4. Langabezia

## Lanbiden erregistraturik dauden langabezian dauden pertsonak

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Behe Bidasoa** | **5.952** | **5.423** | **4.701** | **4.275** | **4.029** |
| Irun | 5.012 | 4.562 | 3.999 | 3.622 | 3.431 |
| Hondarribia | 940 | 861 | 702 | 653 | 598 |

Iturria: Lanbide

## Langabezia tasa Behe Bidasoa, Gipuzkoa eta EAEan 2008-2018




## Langabezia tasa 2018

| | |
|---|---|
| EAE | 11,2% |
| Gipuzkoa | 9,1% |
| **Behe Bidasoa** | **10,8%** |
| Irun | 11,8% |
| Hondarribia | 7,3% |

Iturria: Lanbide, 2017ko biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta

## Langabezian dauden pertsonen profila Behe Bidasoan 2018

| | |
|---|---|
| Sexua | Emakumezkoa (60%) |
| Adina | 44 urte baino gehiago (52%) |
| Ikasketa maila | Bigarren hezkuntza (47%) |
| Jarduera sektorea | Zerbitzuak (73%) |
| Multzo profesionala | Zaharberritze-zerbitzuko langileak, saltzaileak, etab (34%) |

Iturria: Lanbide



# 10/
# Enpresa ehuna

## 10/1. Establezimenduak eta enplegua 2018

**Establezimenduak jarduera motaren arabera: 6.609**

Nekazaritza, arrantza eta abeltzainntza: %1,4 | Industria: %5,9 | Eraikuntza: %14,8 | Zerbitzuak: %77,9

**Enplegua jarduera motaren arabera: 26.782**

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza: %1,7 | Industria: %14,9 | Eraikuntza: %5,7 | Zerbitzuak: %77,7

Iturria: Eustat

## 10/2. P.I.B.

**Barne-produktu gordina BPG, per capita, (prezio arruntak €)** **2016***

| | per capita BPG (€) | Indizea (EAE=100) |
|---|---|---|
| Irun | 28.143 | 86 |
| Hondarribia | 23.631 | 72 |
| Behe Bidasoa | 27.137 | 83 |
| Gipuzkoa | 33.081 | 101 |
| EAE | 32.771 | 100 |

Iturria: Eustat *azkeneko datua



# 11/
# Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

## 11/1. Nekazaritza

**Usategiak Behe Bidasoan: kopurua eta tamaina** — **2018**

| | |
|---|---|
| Usategi kopurua | 528 |
| Batez besteko tamaina (Hak) | 2,02 |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

**Azalera osoa Behe Bidasoan, motaren arabera** — **2018**




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

## 11/3. Abeltzaintza

**Abelburuak Behe Bidasoan: kopurua eta mota** — **2018**

| | |
|---|---|
| Abelburuak, kopurua | 5.741 |
| Abelburuak, abereen arabera | Ardiak (56%), behiak (30%) |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

## 11/2. Arrantza

**Arrantza jarduera** — **2018**

| | |
|---|---|
| **Ontziak** | |
| Artisau erara | 8 |
| Azalera | 16 |
| Guztira | 24 |
| **Marinelak** | |
| Artisau erara | 38 |
| Azalera | 228 |
| Guztira | 266 |
| **Atzemandakoak** | |
| Bolumena (kilotan) | 9.420.130 |
| Arrain motak | hegaluzea (31%), antxoa (22%), berdela (20%), sardina (12%) |

Iturria: Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia



# 12/ Industria

**Industri establezimenduak eta enplegua, jarduera motaren arabera** **2018**

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua |
| ·Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 33 | 588 | 5 | 63 | 38 | 651 |
| ·Ehungintza, jantzigintza, larrua eta oinetakoak | 24 | 113 | 4 | 5 | 28 | 118 |
| ·Egurra eta artelazkia | 13 | 38 | 1 | 1 | 14 | 39 |
| ·Papera | 3 | 45 | - | - | 3 | 45 |
| ·Arte grafikoak eta euskarri grabatuen kopia | 27 | 66 | 4 | 9 | 31 | 75 |
| ·Industria kimikoa | 5 | 32 | - | - | 5 | 32 |
| ·Kautxua eta plastikoak | 26 | 488 | 1 | 1 | 27 | 489 |
| ·Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuk | 6 | 28 | 1 | 1 | 7 | 29 |
| ·Burdin produktuak, altzairua… | 2 | 40 | - | - | 2 | 40 |
| ·Produktu mineralak, makineria eta ekipamendua | 83 | 1.052 | 4 | 4 | 87 | 1.056 |
| ·Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak | 12 | 251 | - | - | 12 | 251 |
| ·Material eta ekipamendu elektrikoa | 4 | 59 | - | - | 4 | 59 |
| ·Beste ataletan ez dagoen makineria eta | 17 | 221 | 2 | 5 | 19 | 226 |
| ·Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdiatoiak | 3 | 183 | - | - | 3 | 183 |
| ·Garraio-materiala | 2 | 283 | - | - | 2 | 283 |
| ·Altzariak eta manufakturako beste industria batzuk | 37 | 145 | 2 | 4 | 39 | 149 |
| ·Makineria eta ekipamenduaren konponketa eta | 28 | 85 | 20 | 40 | 48 | 125 |
| ·Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotuaren | 3 | 10 | 3 | 3 | 6 | 13 |
| ·Ura hartu, araztu eta banatzea | 3 | 67 | 1 | 17 | 4 | 84 |
| ·Ur zikinak biltzea eta tratatzea | 9 | 41 | - | - | 9 | 41 |
| **Industri Guztira** | **340** | **3.835** | **48** | **153** | **388** | **3.988** |

Iturria: Eustat

**Establezimenduak**




**Enplegua**




Iturria: Eustat

# 13/ Eraikuntza

**Establezimenduak eta enplegua eraikuntza sektorean** **2018**

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua | Establez. | Enplegua |
| **Eraikuntza Guztira** | 827 | 1.296 | 149 | 217 | 976 | 1.513 |

Iturria: Eustat





# 14/ Merkataritza

## Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan, jarduera motaren arabera — 2018

| | Irun | Hondarribia | Behe Bidasoa |
|---|---|---|---|
| Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 351 | 62 | 413 |
| Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak | 183 | 30 | 213 |
| Farmazia, drogeria, lurrin-dendak | 46 | 6 | 52 |
| Etxeko ekipamendua | 66 | 9 | 75 |
| Liburuak, egunkariak, paper-dendak | 32 | 5 | 37 |
| Txikizkako beste dendak | 177 | 30 | 207 |
| Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo* | 40 | 6 | 46 |
| **Txikizkako Merkataritza Guztira** | **895** | **148** | **1.043** |

Iturria: Eustat

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta

## Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan




Iturria: Eustat

## Merkataritza dentsitatea, jarduera mota nagusien arabera, (establez. 1.000 bizt.) — 2018

| | Irun | Hondarribia | Behe Bidasoa |
|---|---|---|---|
| Elikagaiak | 5,60 | 3,67 | 5,19 |
| Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak | 2,92 | 1,78 | 2,68 |
| Farmazia, droguería, lurrin-dendak | 0,73 | 0,36 | 0,65 |
| Etxeko ekipamendua | 1,05 | 0,53 | 0,94 |
| Liburuak, egunkariak eta papertegia | 0,51 | 0,30 | 0,47 |
| Txikizkako beste dendak | 2,82 | 1,78 | 2,60 |
| Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo* | 0,64 | 0,36 | 0,58 |
| **Guztira** | **14,28** | **8,77** | **13,11** |

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta



# 15/ Turismoa

## Behe Bidasoan eskaintzen diren establezimenduak eta ostatu plazak — 2018

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Establez. | Leku kop. | Establez. | Leku kop. | Establez. | Leku kop. |
| · Hotelak | 6 | 622 | 10 | 406 | 16 | 1.028 |
| · Pentsioak | 7 | 192 | 2 | 19 | 9 | 211 |
| · Nekazal etxeak | 2 | 18 | 6 | 63 | 8 | 81 |
| · Landa etxeak | 2 | 25 | 6 | 67 | 8 | 92 |
| · Apartamentuak | - | - | 2 | 114 | 2 | 114 |
| · Kanpinak | - | - | 2 | 790 | 2 | 790 |
| · Aterpetxeak | 1 | 60 | 1 | 152 | 2 | 212 |
| **Ostatu guztira** | **18** | **917** | **29** | **1.611** | **47** | **2.528** |

Iturria: Bidasoa Turismo

## Behe Bidasoan eskaintzen diren ostatu plazak — 2018




Iturria: Bidasoa Turismo

## Batez besteko okupazioa eta batez beste emandako datuak Behe Bidasoako hoteletan — 2018

| | batezbestekoa / maximoa |
|---|---|
| Okupazio maila hoteletan % | 71,5% / 96,3% (abuztua) |
| Emandako gauak (egun kop.) | 1,69 egun / 2,1 egun (abuztua) |

Iturria: Bidasoa Turismo

## Ostalaritza establezimenduak Behe Bidasoan — 2018

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| · Tabernak | 180 | 55,4 | 34 | 34,3 | 214 | 50,5 |
| · Jatetxeak | 134 | 41,2 | 65 | 65,7 | 199 | 46,9 |
| · Beste batzuk | 11 | 3,4 | 0 | 0,0 | 11 | 2,6 |
| **Ostalaritza Guztira** | **325** | **100,0** | **99** | **100,0** | **424** | **100,0** |

Iturria: Eustat



# 16/ Garraioa eta azpiegiturak

## Garraioa Behe Bidasoan — 2018

| Hiriko eta hiri arteko autobusak | Bidaiari kop. |
|---|---|
| Irun-Irun | 1.722.283 |
| Hondarribia – Donostia (N1) | 827.995 |
| Hondarribia – Donostia (AP8) | 249.895 |
| Hondarribia – Donostia (EHU) | 133.237 |
| Hondarribia – hospital – Txingudi MG | 86.816 |
| Irun – Donostia (N1) | 653.120 |
| Irun – Donostia (EHU) | 24.644 |
| Hondarribia – Irun | 997.888 |
| Hondarribia – Anoeta | 2.505 |
| Hondarribia – Donostia (gauekoa) | 48.209 |
| Hondarribia – Irun (gauekoa) | 13.712 |
| **EuskoTren** | |
| Irun | 2.346.255 |
| Donostia-Hendaia | 7.025.706 |
| **ADIF** | |
| Eskualde artekoak | 10.374 |
| Linea handiak | 47.586 |
| Aldirikoak | 625.997 |
| **Itsas Linea** | |
| Hondarribia-Hendaia | 204.000 |
| **Donostia-Hondarribiko aireportua** | |
| Bidaiariak | 289.444 |
| Airekoak | 6.415 |

Iturria: AUIF, Ekialdebus, EuskoTren, Renfe, Jolaski, Aena

## Errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak — 2018

| | Irun | | Hondarribia | | Behe Bidasoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Enpresak** | **Kamioak** | **Enpresak** | **Kamioak** | **Enpresak** | **Kamioak** |
| Ibilgailu arinak | 106 | 165 | 13 | 22 | 119 | 187 |
| Ibilgailu astunak | 170 | 1.093 | 22 | 33 | 192 | 1.126 |
| **Guztira** | **276** | **1.258** | **35** | **55** | **311** | **1.313** |

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia



# Errepideetako trafikoa

| Ibilgailuen eguneroko batez besteko zirkulazioa Behe Bidasoko errepideetan barrena | 2018 |
|---|---|
| **Irungo ordainlekua (A8)** | **Ibilgailu kop.** |
| Donostiara bidean | 21.849 |
| Frantziara bidean | 21.497 |
| Guztira bi norabideetan | 43.346 |
| **Beste errepide batzuk*** | |
| N-1 | 40.257 |
| N-638 (Irun-Hondarribia) | 25.696 |
| N-121-A | 15.322 |

Iturria: Bidelan, Gipuzkoako Foru Aldundia

*2017ko azkeneko datuak



# 17/
# Zerbitzuak

**Zerbitzuen establezimenduak, jarduera motaren arabera** **2018**

| | Irun | Hondarribia | Behe Bidasoa |
|---|---|---|---|
| Merkataritza, garraioa eta ostalaritza | 2.239 | 441 | 2.680 |
| Informazioa eta komunikazioak | 87 | 24 | 111 |
| Finantza jarduerak eta aseguruak | 107 | 24 | 131 |
| Higiezinen jarduerak | 100 | 23 | 123 |
| Jarduera profesionalak eta laguntzaileak | 715 | 220 | 935 |
| Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna | 488 | 138 | 626 |
| Jarduera artistikoak eta beste zerbitzuak | 449 | 94 | 543 |
| **Zerbitzuak Guztira** | **4.185** | **964** | **5.149** |

Iturria: Eustat



# 18/ Ekipamenduak

| | 2018 |
|---|---|
| **Kirol ekipamenduak** | |
| Artaleku eta Azken Portu polikiroldegia, bazkide kopurua | 11.171 |
| Hondartza polikiroldegia, bazkide kopurua | 6.296 |
| Hondarribiko Kirol Portua, eskalen kopurua | 521 |
| Hendaiako Kirol Portua, eskalen kopurua | 3.435 |
| **Kultur eta aisialdi ekipamenduak** | |
| OIASSO Erromatar Museoa, bisitari kopurua | 29.210 |
| Plaiaundiko Parke Ekologikoa, bisitari kopurua | 14.299 |
| **Liburutegiak** | |
| Carlos Blanco Aguinaga CBA Kultur Gunea | |
| • Bisitari kopurua | 206.572 |
| • Bazkide kopurua | 31.261 |
| Zuloaga Etxea | |
| • Bisitari kopurua | 74.294 |
| • Bazkide kopurua | 9.455 |
| **Amaia Kultur Zentroa** | |
| • Erabiltzaileak | 60.677 |
| • Jarduerak | 399 |
| **Irungo Udal Musika Eskola eta Kontserbatorioa** | |
| • Konserbatorioa, ikasleak | 90 |
| • Musika eskola, ikasleak | 600 |
| **Hondarribiko Musika Eskola,** ikasleak | 480 |
| **Ficoba, Erakustazoka** | |
| • Azokak/Erak. | 18 |
| • Bilerak | 237 |
| • Bisitariak | 197.188 |

# Eskerronak



/ AENA - DONOSTIA-HONDARRIBIKO AIREPORTUA
/ AUIF
/ BIDELAN
/ DEUSTO UNIBERTSITATEA
/ EGAILAN
/ EKIALDEBUS
/ EUSKOTREN
/ EUSTAT - EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
/ FICOBA, GIPUZKOAKO ERAKUSTAZOKA
/ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
/ GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINTZA OROKORRA
/ HONDARRIBIKO SAN PEDROKO MARINELEN KOFRADIA
/ HONDARRIBIKO UDALA
/ INE
/ IRUNGO UDALA
/ JOLASKI
/ LANBIDE
/ MONDRAGON UNIBERTSITATEA
/ NAFARROAKO UNIBERTSITATEA
/ RENFE
/ UPV/EHU

Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

**www.bidasoa-activa.com**
Hendaia kalea, 8 · Ducoureau Jauregia · 20301 Irun · Gipuzkoa



www.bidasoa-activa.com